

MADALENA JAIK LIZEAGAN

## Asteburuan, Lizeaga festetan

Bi eguneko festa antolatu dute aurten Lizeagan. Bihar arratsaldean botako dute txupinazoa, 18:03an, puntual-puntual. Tortila txapelketa, sagardo-kata eta sagardo probaketa ere izango dituzte bihar.

LIZEAGA auzoan festa giroa izango dute bi egunez, bihar eta etzi, Madalena jaiak baitituzte. Berrikuntzaz betea dator aurtengo egitaraua, egun kopurutik hasita; lehen, egun bateko festa izaten zen, eta aurten bi eguneko antolatu dute. Horrez gain, sagardo-kata eta balkoi lehiaketa antolatu dituzte, beste hainbat ekitaldirekin batera.

### Tortila eta sagardoa gaur

Tortila lehiaketa izaten da urteroko klasiko bat. Edozein tortila klase egin liteke, eta onenak irabaziko du. Tortila entregatzeko azken ordua: 18:35ak. Lehendabiziko 10ek saria izango dute. Tortilari bultzatzeko sagardoa izaten da lagun bikaina. 18:45etan sagardo kata prestatu dute, 3 euroan, 15 minutu lehenago (gehienez 30 lagun). Ondoren sagardo probaketa, Hernaniko sei sagardotegietako sagardoekin, eta gero koadrilen afaria, norberak jatekoa eramanda. Bukaera, musikarekin.

### Igandean, egun guztia

Umeentzako ekintzekin hasi-



Igandean, umeentzako jolasekin hasiko dute eguna.

ko dute igandea, 10:00etan. Eguerdian txaranga eta herri poteoa, gero herri bazkaria, eta jokoan eta musikarekin bukatuko dute eguna.

Azken egunean saria emango diote balkoi ederrenari; horregatik, balkoiak *mozorrotzeko* eskatu diete bizilagun guztiei.

Trafikoarentzat itxi egingo dute Victor Hugo kalea igandean, 11:00etatik 18:00etara. ||

### MADALENA JAIK - EGITARAUA

#### UZTAILAK 20, LARUNBATA

**18:03** Txupinazoa.  
**18:35** Tortilla txapelketan parte hartzeko azken ordua. Edozein tortila eraman liteke, eta 10 lehenengoek saria dute.  
**18:45** Sagardo kata.  
**19:12** Sagardo probaketa: Itxasburu, Larre-Gain, Elutxeta, Elorrabi, Alberro eta Iparragirre.  
**21:30** Koadrilen afaria.  
**22:30** Musika.

#### UZTAILAK 21, IGANDEA

**10:04** Txokolatada, umeentzako jolasak eta mozorro-lehiaketa.  
**12:06** Buruhaundiak eta Bosko Anitz txaranga.  
**12:57** Herri poteoa Bosko Anitz txarangarekin.  
**14:30** Herri bazkaria.  
**16:00** Toka eta bote txapelketa eta ondoren sari-banaketak.  
**17:00** Modesto Ordoki: Gizon Orkesta.  
**20:30** Jai bukaera.

### PAUSOKA - HITZALDIA BIHAR

## Hitzaldia, neurobiogenetikari buruz

Lluis Arnáiz Duró de Paradisek emango du hitzaldia, bihar, 10:00etan, Etxeberrin, 9. blokean.

BEHAR bereziak dituzten haurren gurasoei zuzendutako hitzaldia emango dute bihar, goizeko 10:00etan, Hernanin. Neurobiogenetikari buruz ariko da Kataluniako mediku bat, Lluis Arnáiz

Duró de Paradis, kasu horietan aditua. Arnáiz Duro de Paradisek Bartzelonan dauka kontsulta, eta neurologia erabiltzen du bere gaixoak tratatzeko. Hain juxtu, gaixo horien artean, asko dira tera-

pia eta zaintza bereziak behar dituztenak, eta berak nola lan egiten duen azalduko du biharko hitzaldian.

Hernaniko Pausoka elkarteak antolatu du hitzaldia, behar bereziak dituzten hau-

rren aldeko elkarteak. Pausokak dei egin die kasu horretan egon litezkeen guztiei, biharko hitzaldira azalitzeko. Hitzaldia, Pausoka elkarteko bulegoan, Etxeberrin auzoan, 9. blokean. ||

### UZTAILA JAIK JAI

Jairik ez da faltako Hernani inguruan, datozen egunetan

● Astigarragan Herri Krosa dute bihar.

● Aranon pelotako finalak eta kotxe zaharren igoera igandean.

● Santa Barbarako San Inaziotako bazkari txartelak salgai daude.

UZTAILEAN festa faltarik ez da izaten ez Hernanin, eta ezta inguruetan ere. Asteburu honetan Santiotako lehendabiziko eguna dute bai Astigarragan eta bai Aranon.

### Urteroko krosa, bihar

Astigarragan, bihar egingo dute urteroko Herri Krosa. Arratsaldeko 17:30etan aterako dira korrikalariak Apeztegia plazatik, eta parte hartu nahi duenak 16:30etatik aurrera apuntatu behar du irteera puntuan bertan. Saribanaketa, 19:00etan.

### Pelotako finalak, igandean

Aranon ere igande honetan hasiko dute festa, gero ostegun segitzeko. Pelota partiduko finalak jokatuko dira, 11:00etatik aurrera, eta 12:00etan, urtero bezala, kotxe zaharrak edo anti-gualak igoko dira Aranora.

### San Inaziotako bazkaria

Santa Barbaran San Inazio eguna ospatuko dute aurten ere, uztailearen 31n. Urtero bezala, herri bazkaria izango da han bertan (marmitakoa, txuleta...), eta txartelak salgai daude, 25 euroan, Aralar eta Kitton. ||

**AITAN - ETXE**  
TABERNA  
Larramendi, 15  
943 55 00 46

**ONDO PASA JAIK!**

**ASTE BURUTAN AFARIK!**

**gotzone azkue**  
ileapaindegia

**JAI ZORIONTSURIK OPA DIZKIEZUGU!**

Lizeaga, 2-behea  
20120 Hernani

Animalien ileapaindegia  
**KORAPILO**

**ONDO PASA MADALENAK!**

Ileapaindegia Elka dura eta oagarririk  
Orduu aurretik eskatu Etxetik hartu eta entregatzeko zerbitzua

Victor Hugo kalea, 3 - Lizeaga - Hernani  
Telf: 943 04 83 98  
korapiloileapaindegia@hotmail.com

**ondo jan**

**GORA LIZEAGAKO JAIK!**

**HARATEGIA - URDAITEGIA PLATER PRESTATUAK**

Larramendi, 17 - Hernani  
635 746 689 - 943 550 332

**ATXIKI TABERNA**  
Len talde berria

Uztailaren 19an

**ASTE BURUTAN AFARIK EMATEN DITUGU**

**ASTEAN ZEHAR ETXETIKO MENUA**

9€

Hernaniko Kiroldegian

TELEFONOAK ● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 092 ● **DYA:** 943 464622  
 ● **Autobusak:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037  
 ● **Anbulatorioa:** 943 006666 - 943 203020 ● **Jokalari anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103  
 FARMAZIAK ● **Eguz:** **Castilla** Urbieta 7 - 943 552941 ● **Gauz:** **Aldabe** Perkaiztegi 8 (Antziola) - 943 336022

**EGURALDIA**  
**GAUR** Tenperaturak berriz gora egingo du, eta sargori puntua jarriko du gaur. Eguzkia nagusi, baina arratsalde partera lainoak eta trumoi-arriskua. Min.17° / Max.27°  
**BIHAR** Erabat nahastuta ibiliko da bihar eguraldia. Bero egingo du eta eguzkia ikusiko dugu, baina noiznahi lainotu eta zaparradak botatzeko arriskua dago. Min.19° / Max.28° (euskaime)



**Espainiako bandera udaletxean dago, atzotik.** Espainiako bandera, Ikurriña eta Europar batasuneko jarri zituzten atzo Hernaniko udaletxean. Espainiako Gobernuak agindua eman zuen herri guztietako udaletxeetan Espainiako bandera jarri beharra zegoela, eta Hernanin atzo jarri zuten. Luis Intxauspe Hernaniko Alkateak ekainean jakinarazi zuenez, «mehatxupean eta bortxaz» jarriko da Espainiako bandera Hernaniko udaletxean. Uztailaren 18a zen atzo, eta horren inguruan, Sortu alderdiak horrela adierazi zuen atzo, Kronikara bidalitako gutunean: «1936an bezala, aurten ere uztailaren 18an agerian geratuko da Espainiaren inperialismoaren zapalkuntza». ||

## ESKU PELOTA - BURUNTZALDEKO III.TXAPELKETA

# Finalerdiak gaur, bihar eta astelehenean, kiroldegian

Gaur partidu bat jokatu da, 20:00etan: Esnal-Etxegoien / Real.

**BURUNTZALDEKO Txapelketa** azken fasean sartua dago, eta asteburu honetan 10 partidu jokatu dituzte Hernanin, gaurtik astelehenera. 4 final laurden jokatu dira, eta 6 finalerdi; finalerdi horietako bat, gaur jokatu dute Esnalek eta Etxegoienek, Real Sociedad taldeko Odriozola eta Errazkinen kontra. Gaur, 20:00etan, kiroldegian.

**Bihar goizean, 3 finalerdi** Hiru finalerdi jokatu dituzte bihar, 11:00etatik aurrera, eta bitan hernaniarrak izango dira tartean. Kadeteetan, Cisneros-Urruzola / Real; jubeniletan, Urnieta / Intza; eta nagusietan, Urkizu-Esnaola / Gazteleku.

Arratsaldean, infantil mailako lau final laurden izango dira, 16:00etatik aurrera: Alain Agirre-Garikoitz Azur-

mendi, Ander Lazkano-Endika Arizmendi, Ioritz Berasarte-Oihan Zugasti, eta Jokin Elizalde-Ekaintz Insausti.

**Astelehenean, bi finalerdi** Astelehenean Gaztelekuko bi bikotek jokatu dute kadete-etako finalerdi, 18:00etan, eta ondoren, Hernaniko bi bikote izango dira, 20:00etatik aurrera jubeniletan: Altuna anaiak / Chiapuso-Arizkorreta. ||

### ❖ PRESO ETA IHESLARIAK Kontzentrazioa, gaur, Zinkoenean

Euskal preso eta iheslarien senideek antolatuta, kontzentrazioa izango da gaur, 20:00etan, Zinkoenean. Lema: *Gaixo larriak eta kondena osoa betea duten presoak etxera.* Dei egin diete hernanier guztiei kontzentrazioan parte hartzeko. ||

### ❖ AMHER Munduko sukaldaritzaren tailerra, bihartik aurrera

Senegal, Peru, Maroko eta Kolonbiako sukaldaritzaren ikasteko aukera izango da Hernanin bihartik aurrera, lau larunbatetan. Goizeko 09:00etatik 13:00era da ikastaroa, eta 50 euro balio ditu. Deitu: 667 710 928. ||

### ❖ SASOIKO Sendabelarrak biltzera, Miramonera

Sasoiko zentroak antolatuta, datorren igandean sendabelarrak ezagutzeko ibilaldia antolatu dute, Miramon eta inguruetara. Apuntatzeko aukera dago bihar eguerdira arte, bi telefonotan: 943 33 11 83 edo bestela, 656 721 492. ||

### ◆ ERREMONTA - KUTXA PREBIA

#### Barrenetxeak ezin, Endikaren kontra

Banakako partidua, Kutxa Prebia txapelketakoa zuen jokoa atzo Endika Barrenetxea hernaniarrak. Aurrean, beste Endika bat. Atzelaria aurrelariaren kontra; eta hernaniarrak ezin. 16-30 galdu zuen atzo, Barrenetxea IVak. ||

### ❖ KIXKAL TABERNA

#### Musika zelta, Turlach-en eskutik, gaur

Beste behin ere, Turlach taldea Kixkal tabernan izango da. Musika zelta jotzen du talde honek, eta gaur gauean aukera izango da entzuteko, 22:30etatik aurrera. Gainera, laguntzaile batzuekin etortzeko asmoa dute, Kronikari jakinarazi diotenez. ||

### ❖ ETXEBIDE-SAGASTIYAKO ETXEBIZITZAK

#### Zabalik dago Sagastiyako

#### 88 etxebizitzetan izena emateko epea

Sagastiyako 88 etxebizitza eraikiko dituzte, erosketakoak. Etxebideko zozketa egingo du, baina parte hartzeko, alde aurretik izena eman behar da. Etxebide dagoeneko apuntatuta daudenek bakarrik eman dezakete; horretarako, Sagastiyako promozio honetan apuntatu behar dute. Bi modu daude: [www.etxebide.euskadi.net](http://www.etxebide.euskadi.net) helbidean edo Eusko Jaurlaritzak Donostian (Andia kalea, 13) duen egoitzara joanda. Azken eguna, uztailak 22. ||

### ◆ AUTOKROSSA

#### Iker Lujanbio seigarren, Carballon

Autokrossean hernaniarrak ez dabilta makal aurten ere, Iker Lujanbioren erruz. Joan den asteburuan jokatu zuten Carballon, beste 37 kotxeren artean, eta seigarren postua lortu zuten. Entrenetan 12garren izan zen; lehenengo sailkapen mangan 3garren; bigarren sailkapen mangan berriz ere 3garren, eta finalera 7garren postuan sartu zen. Finalean kotxe bat aurreratzea lortu zuen. Hurrengo proba, berriz Galizian, abuztuaren 17 eta 18an, Autocross Arteixo. ||

### Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

## MARIANO SANZ GARCIA

Herenegun hil zen, 89 urte zituela  
(Maite Sanz gure korrikidearen aita)

Besarkada bat Maiteri  
eta familia guztiari

**OZENKI ABESBATZA**

Hernanin, 2013ko uztailaren 19an



### ❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

**Inbertsio paregabea.** Pisua salgai Amaran. 175 m2 trastelekua aparte. 4 gela, egongela handia, 2 komun. Guztiz eraberritua. 465.000€. Deitu: 943 29 18 81 / 658 982 816 (Inm. Mendia)

**Aukera.** Pisua salgai Amaran (Azpeitia kalea), 55 m2, 2 gela, egongela, sukalde eta komona. 184.000€. Deitu: 943 29 18 81 / 658 982 816 (Inm. Mendia)

**Pisuak, baserriak, txaletak, nabeak, garajeak behar dira.** Edozein zonaldetan. Alokairuan edo salmentan. Deitu: 943 29 18 81 / 658 982 816 (Inm. Mendia)

**TXOLLOAI,** 120.000€, Victor Hugo kalean. 2 gelatako pisua, igogailua, orain dela 10 urte eraberritua. Deitu: 699 450 815

**Ereñotzun pisua salgai.** Dena eraberritua. 3 logela, sala, sukalde eta komuna. Kalefakzioa eta aparkamendu komunitarioarekin. Garajea aukeran. 180.000 € (negoziabileak). Deitu: 600 644 885

**Kataluniako neska bat pisu bila dabil konpartitzeko,** ikasketa kurtsoan zehar. Deitu: 622 699 392

**Sukaldari bila gabiltza Hernaniko taberna batean,** asteburuetan lan egiteko. Deitu: 688 647 582

**Akordeioa salgai,** Zero Sette markakoa. Deitu: 686 679 075

**ETXEKO KONPONKETAK egiten dira;** iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, aurikuloterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)